

# *Definizioak*



### **BIRAKETA** *rotation*

Lurra bere ardatzaren inguruan egiten duen 24 h-ko itzulia.

### **EGUARTE** *journée*

Eguzkiaren altxatzetik sartzerainoko iraupena. Iraupen hau aldatzen da urtaroen arabera.

### **EGUN** *jour*

Egun batek eguarte eta gaualdi bat irauten du. Egunaren iraupena beti bera da : 24 orenekoa.

### **EGUZKI-IZARTAULA** *Toise solaire*

Puntu kardinalekin graduatua den disko batean ziri bat landaturik eta erdian orratz handi bat bertikalean. Ziri horren itzalaz baliatuz, Eguzkiaren itxurazko ibilbidearen neurtzeko egina da.

### **EKINOZIO** *équinoxe*

(latinetik, *aequus*, berdin, eta *nox, noctis*, gau). Ekinozio denboran eguarreak eta gaualdiak iraupen bera dute (Udaberriko ekinozioa martxoaren 20 edo 21ean eta larrazkeneko ekinozioa irailaren 22 edo 23an).

### **GAUALDI** *nuit*

Iraupen bat da : Eguzkiaren sartzetik Eguzkiaren altxatze artekoa. Iraupen hau aldatzen da urtaroen arabera.

### **GNOMONA** *gnomon*

Eguzki-orratza, taula eta ziri batez osatua. Ziriaren itzala taularen gainean agertzen da.

Egunaren zatiketarako ez da arras tresna egokia Eguzkiaren deklinazioaren aldakortasunarengatik. Tenore berean, egu-nero itzalaren luzaera ez da bera ez eta ere norabidea, eguerditan salbu.

### **HORIZONTE** *horizon*

Zeruertz ; irudipenezko marra zirkularra. Begiralea zirkulu horren zentroan dago eta bere inguruan, zeruak eta lurra edo zeruak eta itsasoak elkar hunkitzen dutela dirudi.

### **ITZALMUGA** *terminateur*

Eguzki sisteman diren astroek badute alde argizatua eta alde iluna. *Itzalmuga* deitzen da bi aldeak bereizten dituen marra.

### **LEKUKO MERIDIANO**

Lekuko meridioak Ipar-Hego ardatza irudikatzen du. Gnomonaren itzalaren bidez marraz daiteke eta Hegoaldearen norabidea erakusten digu. Lekuko meridioak Lurraren meridiano baten zati bat baizik ez digu irudikatzen.

### **LUR-GLOBO** *Globe terrestre*

Lurraren irudikatzeke, izari zuzenetan egina den maketa. Hartan, kontinente eta ozeano guziak aurki ditzakegu.

**SOLSTIZIO** *solstice*

(latinetik *sol* : Eguzki, eta *status, stare* : gelditu). Eguarte laburrena edo luzeena duen aldia.

Udako solstizioan, Eguzkia Kantzer tropikoaren zenitean iragaiten da eta ipar-hemisferioak eguarte luzeenak dauzka. Neguko solstizioan aldiz, Eguzkia Kaprikornio tropikoaren zenitean iragaiten da eta hego-hemisferioak eguargi luzeenak dauzka.

Ekainaren 21 edo 22an eta abenduaren 21 edo 22an dira solstizioak eta udaren eta neguaren hastapena iragartzen dute. Egunik luzeenak eta laburrenak egun haietan iragaiten dira Ipar-hemisferioan eta alderantziz Hego-hemisferioan.

**TRANSLAZIO** *révolution*

Lurra Eguzkiaren itzulian urte batez egiten duen itzulia.

**URTARO** *saison*

Ekinoziotik solstizio arteko garaia edo solstiziotik ekinozio artekoa.

Lurburu-ardatzaren inklinazioa ( $23^{\circ}26'$ ) eta Ipar-izarrari buruzko posizioa ez dira aldatzen. Horregatik ditugu urtaroak. Hori dela eta, batean Iparburua eta bestean Hegoburua ditu Eguzkiak argitzen. Eguartearen iraupena aldatzen da globoaren leku batetik bestera.

Udako solstizioan, Eguzkia Kantzer tropikoaren zenitean pasatzen da eta ipar-hemisferioak eguarte luzeenak dauzka. Neguko solstizioan aldiz, Eguzkia Kaprikornio tropikoaren zenitean pasatzen da eta hego-hemisferioak eguargi luzeenak dauzka.

Ekinozioetan (udaberrian eta udazkenean), Eguzkia ekuatorearen planoan da eta globoaren toki guzietan eguartearen eta gaualdiaren iraupena berak dira. Urtaroen fenomenoak gertatzen zaie biraketa ardatza makurra duten planeta guziei.

**ZENIT** *zénith*

Behatzaileak bere tokitik angelu zutenean daukan zeruko puntua.